

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak genero-indarkeria egoeran dauden emakumeak artatzeko protokoloa ezarri du

Kolektibo horretako 716 emakumeri egin zitzaizen kontratua Nafarroan 2016an, eta 141 emakumek hartu zuen parte Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren programan

Astelehena, 2017.eko otsailak 13

Eskubide Sozialetako Departamentuaren menpeko Nafarroako Enplegu Zerbitzuak genero-indarkeria egoeran dauden emakumeak artatzeko protokoloa onartu du duela gutxi.

Era horretako gertakariak jasan dituen pertsona bat artatzerakoan kontuan izan beharreko elementu guztiak jasotzen ditu agiriak, bere pribatutasunean eragiten dutenetatik hasi (nork artatu behar dituen, zer espaziotan, etab.), beharrezko agiri edo eskuragarri dauden baliabideetaraino. Protokolo horren bitartez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bere 10 enplegu-agentzian ematen duen arreta homogeneizatu nahi du, eta eraginkorra izatea nahi du emakume horiei enplegua eskuratzeko eta mantentzeko ematen zaien laguntasunean.

2016an, kolektibo horretako kideak kontratatze hobaridun 716 kontratu egin ziren Nafarroan; 2015ean, berriz, 605. Halaber, 2016an, 141 emakume artatu ziren Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren programan; laguntza ekonomikoa eta orientazio profesionaleko ibilbide pertsonalizatua hartzen ditu programa horrek.

NEZk indartu egin du genero-indarkeriaren biktimen diren emakumeenganako babesa bere azken deialdietan. Toki erakundeei obra eta zerbitzuetarako ematen zaizkien laguntzen barruan, 30 urtez azpiko emakume biktimen kontratazioa sustatu zen 2016an. 2017. urterako, laguntzen deialdiaren [formulazio berriarekin](#) (diru-laguntza kolektiboaren arabera izango da, eta ez ikasketa-mailaren arabera), eman daitekeen diru-laguntzarik handiena emango da emakume biktimen kontratuetarako, hileko 1.000 eurokoa, hain zuzen ere. Genero-indarkeriaren biktimen diren emakumeek, lan autonomoari ematen zaizkien laguntzetan ere, [laguntza handiagoak](#) jasotzen dituzte.



Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bulego bat.

Protokolo hori etengabe gainbegirutzen da, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako emakume eta gizonen arteko [Berdintasun Programa](#) onartzen duen 2016ko martxoko Nafarroako Gobernuaren akordioan jasotako neurrietako bat da.

Arreta emateko espazio egokia

Besteak beste, protokoloak aurreikusten du, agentzia bakoitzeko zuzendaritzak arduradun bat izendatuko duela genero-indarkeria egoeran dauden emakumeei arreta emateko; pertsona hori behar bezala trebatuta egongo da eta eskuragarri dauden baliabideen berri izango du, gaiari buruzko informazio eguneratua eskaintzeko edo, beharrezkoa balitz, erabiltzailea beste zerbitzu edo departamentu batzuetara bideratzeko gai izan dadin.

Espazio fisiko egoki batean hartu behar dira genero-indarkeria egoeran dauden emakumeak, ahal bada espazio itxietan, pribatutasuna izateko. Halaber, protokoloak ezartzen du erabiltzaileak idatzizko onespina eman behar duela bere datu pertsonalak eta bere egoerari buruzkoak NEZren informazio-sisteman sartu ahal izateko, bai eta Enplegu-politiko Aktiboekin lotutako ekintzen onuradun izateko ere.

Gainera, enplegu-eskaerarekin lotutako alderdi administrazioei eta horiek ez betetzearen ondorioei buruzko informazioa jasoko du erabiltzaileak eta, baita egin daitezkeen kontrolei buruzkoa ere, prestazio, subsidio edo laguntzaren baten onuradun direnen kasuan.

Sentsibilizazioa

Protokoloan gogorarazten da tratu txarrek ondorio psikologikoak dituztela, eta horregatik, NEZko teknikarien lan egiteko moduan eta arreta ematerakoan doikuntza batzuk egin beharra egon daitekeela. Adibidez, adostutako hitzorduak aldatzea. Halaber, genero-indarkeria egoeran dauden emakumeen arazoaren aurreko sentsibilizazioa sustatuko da NEZko langile guztien artean (genero-indarkeria egoera egon daitekeela esan nahi dezaketen zantzuak jarrera edo jokaera batzuetan).